



IGANTZIKO UDALA

Nik, Nagore Madariaga Iriarte, Igantziko Udaleko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT:

Igantzi Udaleko alkateak, 2024ko azaroaren 19an, osoki idatzirik dagoen honako Ebazpen hau egin zuela:

161/2024 EBAZPENA, AZAROAREN 19KOA, IGANTZIKO UDALEKO ALKATEARENA, 2024-2025 KANPAINAN IGANTZIKO HERRI LURREN BURU BEHAR DIREN BASO LANEN OBRA KONTRATUA ZENBATEKO TXIKIKO KONTRATUETARAKO ARAUBIDEZ ESLEITZEKO PROZEDURA ERABILTZEKO AGINTZEN E DUENA.

Ikusirik 2024-2025eko kanpainan Igantziko herri lurretan buru beharreko baso lanen proiektuan xedaturikoa.

Ikusirik aipaturiko proiektua obra kontratua dela eta honen aurrekontua 38.407,08 €-koa dela (BEZa kanpo).

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan xedaturikoa.

EBATZI DUT:

1) 2024-2025eko kanpainan Igantziko herri lurretan buru beharreko baso lanen obra kontratua zenbateko txikiko kontratuetaarako araubidez esleitzeko prozedura erabiltzeko agintzea.

2) Mendiko lanen arloan aritzen diren enpresei obra egiteko aurrekontuak aurkezteko gonbidapena bidaltzea, ondorengo zehaztapenekin:

- Aurrekontua: 38.407,38 € (BEZa kanpo).
- Exekuzio epea: landaketak martxoaren 25erako eta udako garbiketak ekainaren 1ean hasi eta irailaren 15erako bukatuak, dena dela, lan guztiak urriaren 3rako bukatuak.
- Proposamen ekonomikoak aurkezteko epea: 15 egun baliodun.
- Proposamenak aurkezteko helbidea: Igantzi Udal bulegoko erregistroa edo egoitza elektronikoa.

3) Igantziko Udaleko osoko eginen den hurrengo bilkuran Ebazpen honen berri ematea.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ZIURTAGIRI hau ematen dut, alkatearen oniritziarekin.

Igantzi, 2024ko azaroaren 19an.

ALKATEA,

IDAZKARIA,

Juankar Unanua Navarro

Nagore Madariaga Iriarte